

## Getxoko Udal Batzari

\_\_\_\_\_ Jaun/Andreak,  
\_\_\_\_\_ kaleko \_\_\_\_\_ zenbakian bizi, eta EHNA edo NAN  
zenbakia \_\_\_\_\_ dudalarik, 2007ko Azaroaren 27ko Udal Batzarrean hasiera  
batean onetsi zen Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aldaketa Zehatzari (zeinak “Punta  
Begoña” 49. aldea, Hirigintzako Arauen 7.1.13 artikulua eta Arriluzen lurpea erabiltzea  
ukitzen baititu) honako GALDAPENAK aurkezten dizkiot:

- a) **Galeriak eraistea ahalbidetzen duen puntua kentzea.** Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak esana duenez, bada medio tekniko nahikorik Ondasun Kulturaltzat sailkatutako galeria hauek bere horretan mantentzeko. Bestalde, hotelaren eraikuntza eta ustiapenaren esleipena baldintza horrekin eman zen. Hartara, uste izatekoa da hura onartu zuen enpresak ziurtasun osoa duela galeriak bota gabe proiektua aurrera egin daitekeela.
- b) **Galerien perimetrotik kanpoko eraikuntzarik ez baimentzea, ezarritako 2. eraikina eta Arriluzeko borobil gunearen azpiko aparkalekua ez onartuz.** Proposatzen den aldaketak zera suposatuko luke: batetik, ezarritako 2. eraikina doan lekua (galerien ipar hegalean) pribatizatzea eta guztiz desitxuratzea, kontuan hartuta gaur egun dagoen berdegunea eraldatu egin beharko litzatekeela eraikin hori egin ahal izateko; bestetik, erabilera publikorako eta zerbitzu orokorretarako izan beharko litzatekeen borobil gunearen ingurua pribatizatzea. Aurreko puntuan bezala, hemen ere, kontuan hartu behar da aldaketak ez direla adjudikazioa eman ondorengo beharrak eraginda, eta haren baldintza teknikoek hotelaren zerbitzu guztiak zein aparkalekua galerien perimetrora mugatzea ezartzen zutela. Beraz, lehiaketara atera zen eta adjudikatu zen proiektua egiteko, aldaketa hauek ez dira beharrezkoak.

Nire galdapenak onartuak izango direlakoan sinatzen dut agiri hau Getxon, 2008ko Urtarrilaren \_\_\_\_\_ an.

Sinatua:

\_\_\_\_\_